

2024ko UZTAILA

Lezoko parke sarea eraberritzen

Prozesu parte hartzailearen memoria



HIRITIK

AT

Lurraldegintzarako
koordinatu
berriak



Lezoko Unibertsitateko Udala







Aixin Zolua 5, 20304, IRUN
Harrobi Plaza 5, 2, 48003, BILBO

hiritik-at@hiritik-at.eus
www.hiritik-at.eus

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
1.1 SARRERA	
1.2 ZEHARKAKO HELBURUAK	
2. PROIEKTUAREN GAKOAK	9
2.1 TOKIKO ERREALITATEA	
2.2 METODOLOGIA	
3. AURRE-DIAGNOSTIKOA	13
3.1 TALDE TEKNIKOAREKIN BILERA	
3.2 BEHAKETAK	
3.3 TALDE ERAGILEAREKIN LAN SAIOA	
3.4 AURRE-DIAGNOSTIKOAREN ONDORIOAK	
4. DIAGNOSTIKOA	39
4.1 IKASLEEKIN LANKETA	
4.2 HERRITARREI GALDETEGIA	
5. PROPOSAMENA	47
5.1 HAURREKIN IBILBIDEA	
5.2 TALDE ERAGILEAREKIN LAN SAIOA	
5.3 INTERBENTZIOEN DEFINIZIOAK	





PARKE SAREA ERABERRITZEN

Sarrera

ZEHARKAKO HELBURUAK

HEZKIDETZA

Talde teknikoan genero formakuntza duen pertsona bat egongo da eta horrek denbora osoan ikuspegi hori presente egotea bermatuko du. Bai euskarrietan, bai proposatzen diren dinamika eta metodologietan genero ikuspegia jasoko da, eta ez da hizkuntza sexista edo iruditegi sexistarik erabiliko. Haurrak eta gazteak aukera berdintasunean hezi behar direla oso argi daukagu eta hori lantzeko helburuarekin diseinatu da prozesu osoa. Proiektua bera eta emango den prozesua hezkidetza alorrean aurrerapausu bat izango dela argi ikusten dugu, beti ere haur eta gazteak espazio publikoa berdintasunean bizi ahal izateko urrats moduan.

ANIZTASUNA


Gizarte-talde guztiak izaten dira anitzak, eta horrek ikasteko eta hobetzeko aukera ematen digu, aintzat hartu behar da herritarren arteko aniztasuna, eta aberastasun modura ulertu. Horretarako, espazio eta gune ireki, abegikor eta inklusiboak behar ditugu, epe ertain eta luzean euskal gizarte berdintsuagoa eta kohesionatuagoa lortzen lagunduko digutenak aniztasun hori balorean jartzea izango da prozesuan zehar landuko den gaietako bai, aniztasun kulturala, gaitasun aniztasuna, sexu-genero aniztasuna. Espazioak identifikatu eta diseinatzeko orduan aniztasun horren betaurrekoak jarrita burutuko dugu prozesua.

JASANGARRITASUNA

Bizi dugun mundu zoro honetan, jasangarritasunaren gaia bizitzako esparru guztietan txertatu beharreko gaia izan beharko zen heinean, jolasguneen eraberritzeetan ere guztiz presente egon beharreko gaia dela deritzogu. Alde batetik, jolasgune berriak eraikitzerakoan erabili beharreko energia kontsumoa murriztea eta naturarekiko errespetuzkoak diren materialak erabiltzea izango dugu ardatz. Bestetik, guztiz industrializatuak ditugun gure herriguneetan, arnaguneak sortzea ezinbestekoa deritzogu, eta orain arteko material polimerotatik urrundu eta prozesu industrial ahalik eta txikiena jasan duten material naturalak erabili beharko liritezke. Azkenik, jolasguneetara natura ahalik eta gehien hurbiltzeko prozesu honetan, garrantzitsua izango da, jolasguneetako eremuen forma eta lurraren morfologia ahalik eta gehien errespetatzea.

JOLAS LIBREA

Jolasguneen lanketa, jolas librearen filosofiaren baitan lantzea da asmoa. Jolas librearen baitako elementuek, talde jolas kooperatiboak, haur eta gazteen arteko negoziazioa eta irudimena sustatzea dute helburu. Horretarako motrizitate mota ezberdinak, textura anitzak, naturarekiko lotura elementuak... baliatzea da asmoa. Jolasa modu librean garatu daitekeen espazioez ari garenean, haurrek beraien gaitasunak modu librean garatu ahalko dituzten, modu librean erabaki eta parte hartu ahal izango duten espazioez ari gara.





PARKE SAREA ERABERRITZEN

Proiektuaren gakoak

TOKIKO ERREALITATEA

Lezo Gipuzkoako udalerrria da, Donostia hiriburutik oso kilometro gutxietara kokatua dago eta gaur egun 6000 biztanle pasa ditu.


Hasiera batean 18 eremu inguru zenbatu dira, guztiak "patroi" berdintsukoak, bai konfigurazio, bai elementu, bai ematen diren erlazio eta jolas motei dagokionean. Udalak argi du 18 horietako zenbait jolasguneren eraberritzeko beharra handia dela, hala eta guztiz ere, zuzenean lan horiekin hasi beharrean, garrantzitsua ikusi du, bide horretan geldialdi bat egin eta haur eta gazteei hitza eman, beraien iritziak jaso eta zein jolasgune mota nahi ditugun pentsatzeko tarte bat ematea herriari eta batez ere hauen erabiltzaileei.

Proiektu honen helburua, beraz, herriko jolasguneetan egingo diren birmoldaketa lanak zehazteko parte-hartze prozesu bat egitea da, prozesua bideratu ondoren, urtero-urtero udal aurrekontuetako diru partida bat eskainiz birmoldatze lanei ekiteko. Lezoko errealitatea kontuan harturik eremu horietako erabiltzaile nagusiak haurrak eta nerabeak direnez, prozesuaren pisu espezifikoak beraien izango dute.



METODOLOGIA

Prozesu parte hartzaileak hurrengo lau faseak izango ditu:









PARTE-HARTZAILEAK

Jolas eremuko erabiltzaile nagusiak haurrak eta gazteak direnez, argi dago prozesu honetan protagonistak beraiek izan behar direla, hala ere, ezin ditugu ahaztu haurren zaintza lanak egiten dituztenak, aiton-amona, guraso... horregatik, lanketan barne-biltzea eta beraiek ekarpenak egin ahal izateko espazioa sortzea garrantzitsutzat jo da. Subjetu protagonistengana heltzeko bide ezberdinak zehaztu dira:

- Alde batetik, talde eragilea sortu da, hezkuntza komunitateko eragile ezberdinetako kideekin. Espazio hau, prozesuaren jarraipena egin eta erabakiak hartzeko tokia izango da. Talde eragilearen bitartez ikastetxe eta aisialdi esparru guztietara iristea nahi da.
- Lezoko herri eskola eta Pasaia Lezo lizeoarekin kontaktua.
- Online galdetegia herritar oroengana iristeko.







PARKE SAREA ERABERRITZEN

Aurre- diagnostikoa

ZINEGOTZI TALDEAREKIN IBILBIDEA

Diagnostikoan aztertuak izango diren haur espazioen aukeraketa, teknikoei fisikoki ezagutarazteko ibilbidea burutu zen herrian barrena.

LAN SAIOA

- **Noiz:** 2023ko azaroaren 9a
- **Parte hartzaileak:**
Lan honen arduradunak izango diren bi zinegotziak.
Hiritik at-eko bi teknikari
- **Helburua**
 - Zinegotzien ohar eta balorazio ezberdinak jaso.
 - Talde teknikoak aztertu beharreko espazioak zein diren ezagutu.

TALDE TEKNIKOAREN BEHAKETAK

Haur espazio bakoitzaren nolakotasuna aztertzeko, banan-banan bertaratu eta aztertu dira.

LAN SAIOA

- **Noiz:** 2023ko abenduaren 4a
- **Parte hartzaileak:**
Hiritik at-eko bi teknikari
- **Helburua**
 - Parke bakoitzaren ezaugarriak aztertu: lur zorua, elementuak, natur baliabideak, zaintza eremuak, kokapena, bestelako azpiegiturak, etab.
 - Haurrek ematen dioten erabileraren inguruan informazioa jaso.



01 TIROLINA



02 EUSKAL HERRIA PARKEA




03 KARLOS SALDISE PLAZA



04 TINELU PARKEA I




05 TINELU PARKEA II



06 MUSIKA ESKOLAKO PARKEA




07 LOPENE PLAZA



08 PISBEKO EREMU NATURALA




09 PISBE PARKEA



10 SAGARDIANDIA PARKEA



11 ZUBITXO



12 ARALAR PARKEA





13 KAIALDE



14 XOXOLUR



15 ALTAMIRAKO ANFITEATROA



16 ALTAMIRAKO PARKEAK



17 AUÑAMENDI PARKEA



18 "PARKE BERRIA"



19 SKATE PARKEA



20 MARKESANE PARKEA



AURRE-DIAGNOSTIKOA

PARKEAK	01. Tirolina	02. Euskal Herria parkea	03. Karlos Saldise plaza	04. Tinelu parkea I
KOKAPENA	Herriaren erdigunean. Ingurune naturala	Herriaren erdigunean Eskola atarian	Herriaren erdigunean Herriko plaza nagusia da	Herriaren erdigunean Etxebizitza artean eta tabernetatik huribl
ELEMENTU ANITZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Tirolina 	<ul style="list-style-type: none"> • Kolunpioak • Txirristra • Eskalada-oreka eremuak • Balanzinak • Helduen elementuak • Iturria • Mahaia + bankua 	<ul style="list-style-type: none"> • Saskibaloia kanastak • Graderioa • Estalitako eremua 	<ul style="list-style-type: none"> • Kolunpioak • Balanzinak • Penduloa
NATURA BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Berdegunean kokatuta eta zuhaitzez inguratua 	<ul style="list-style-type: none"> • Zuhaitzak • Berdegunea hurbil 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez daude 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez daude
ESTALPEA	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estapelrik 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estapelrik 	<ul style="list-style-type: none"> • Estalpea 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estapelrik
ZAINTZAILE EREMUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Bankuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bankuak • Mahaia + bankua 	<ul style="list-style-type: none"> • Grada • Bankuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez daude
ZER ADINETAKO UMEAK	<ul style="list-style-type: none"> • 6-12 urte 	<ul style="list-style-type: none"> • 3-12 urte 	<ul style="list-style-type: none"> • 6-12 urte 	<ul style="list-style-type: none"> • 3-8 urte
BESTELAKO OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> • Orain dela 8 urte prozesu parte hartaile baten ondorioz berritua • Ez du erabilera handirik 	<ul style="list-style-type: none"> • Herritar batzuegatik aspalditik dator espazioa estaltzeko eskaria • Udan bero handia egiten du eta neguan hotz • Nagusienak futbolearen aritzen dira batzuetan eta honek arazoak sortzen ditu • Parking-a dago azpian 	<ul style="list-style-type: none"> • Asko erabiltzen da eremu hau, batez ere euria ari duenean • Futbolearen aritzeak arazoak sortzen ditu, espazio asko hartzen bait dute (porteriak bestelako elementuekin sortzen dituzte) 	<ul style="list-style-type: none"> • Tabernen artean kokatutako parkea. • Zaintzaileak terrazetan egon daitezke eta haurrak modu seguruan jolasean

AURRE-DIAGNOSTIKOA

PARKEAK	05. Tinelu parkea II	06. Musika Eskolako parkea	07. Lopene plaza	08. Pisbeko eremu naturala
KOKAPENA	Herriaren erdigunean Etxebizitza artean, behe solairuetan garageak	Erdigunean Musika eskolaren atarian	Herriko erdigunetik hurbil dagoen auzoa. Anbulatorioaren plazan.	Herriko erdigunetik hurbil dagoen eremu naturala.
ELEMENTU ANITZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Balanzina • Eskalada • Txirrista • Saskibaloia kanasta 	<ul style="list-style-type: none"> • Jolas sinbolikorako elementuak • Txirrista 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxetxoa + eskalada igotzeko • Kolunpioa • Txirrista • Suhiltzaileen barra • Helduentzako tresnak • Tecball mahaia 	<ul style="list-style-type: none"> • Bazkaltzeko mahaiak
NATURA BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ez daude 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez daude 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdegunea • Zuhaitzak • Erreka 	<ul style="list-style-type: none"> • Eremu naturala da • Erreka pasatzen da orubearen ondotik • Zuhaitz asko
ESTALPEA	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estapelrik 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estapelrik 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estalperik 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estalitako eremurik
ZAINZAILA EREMUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Bankuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bankuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bankuak • Gradak 	
ZER ADINETAKO UMEAK	<ul style="list-style-type: none"> • 3-8 urte 	<ul style="list-style-type: none"> • 3-6 urte 	<ul style="list-style-type: none"> • 3-12 urte 	
BESTELAKO OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitzak eta garageak oso gainean daude eta kirol kantxarako ez da oso leku egokia. Arazoak bizilagunekin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko haur txikienentzako eremua, elementuak urriak eta adinez mugatuak. • Kokapena ona denez, erabilera badu. • Musikarekin lotura duen parkearen ideia atera izan da behin baino gehiagotan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Herriko bigarren parke eremu handiena. Batez ere auzotarrek erabiltzen dute. • Elementu oso zaharkituak ditu • Espazio zabala eta anitza, aukera asko eman ditzakeen eremua • 3-8 urte 	<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egun merendero funtzioa • Potentzial handiagoa atera ahal zaio • Aldameneko orubea erabiltzeko aukera egongo balitz parke natural handia sortuko litzateke • Txakur kakak arazo • Baratze parkera konexioa

PARKEAK	09. Pisbeko parkea	10. Sagardiandia parkea	11. Zubitxo	12. Aralar parkea
KOKAPENA	Etxebizitzen arteko orube batean Orube horretan etxebizitzak proiektatuta daude	Musika eskolako goiko atearen parean Etxebizitza artean	Erdigunean	Herrigunetik gora Etxebizitza berriak eraikitzen ari diren eremuan. Urte batzuetan anbulategia ere eremu honetan
ELEMENTU ANITZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kolunpioak • Iturria 	<ul style="list-style-type: none"> • Kolunpioa • Txirrista txikia • Balantzinak • Jolas sinbolikorako kotxea 	<ul style="list-style-type: none"> • Harrizko gradak • Zubia 	<ul style="list-style-type: none"> • Kolunpioak • Txirrista • Jolas sinbolikorako elementuak
NATURA BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Belardi handia 	<ul style="list-style-type: none"> • Atzeko aldean belardia, baina gaur egun konpostera dago bertan kokatuta • Zuhaitzak 	<ul style="list-style-type: none"> • Erreka pasatzen da erditik • Zuhaitz handiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Belardia
ESTALPEA	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estapelrik 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estalperik 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du estalperik 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du estalperik
ZAINTZAILE EREMUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Bankuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bankuak 		<ul style="list-style-type: none"> • Bankuak
ZER ADINETAKO UMEA	-	<ul style="list-style-type: none"> • 3-8 urte 	-	<ul style="list-style-type: none"> • 3-12 urte
BESTELAKO OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> • Eremu honetan etxebizitzak eraikitzeke proiektua • Pisbeko eremu naturala handitu eta indartuz gero, zalantza eremu hau mantentzearekin. 	<ul style="list-style-type: none"> • DIA ondoko parke bezala ere ezagutzen da • Kokapena interesgarria da, baina musika eskolako beheko aldean dagoen parkearekin zentsua du? • Konpost eremuan arratoiak daude 	<ul style="list-style-type: none"> • Egoera kaxkarrean dago • Udan gerizpetan egoteko eremu frexkoa da. • Gaur egun ez da erabiltzen baina potenzialitatea du. • Lehenago lixutegia zegoen bertan 	<ul style="list-style-type: none"> • Eremu batean jolas parkea dago, tartearen belardia eta beste alde plaza handi huts bat da. Plaza handi huts horri erabilera jakin bat emateko aukera dago, kirolerako adibidez. • Udan eguzkiak asko jotzen du eta ez da leku egokia izaten beroarengatik

AURRE-DIAGNOSTIKOA

PARKEAK	13. Kaialde	14. Xoxolur	15. Altamirako anfiteatroa	16. Altamirako parkeak
KOKAPENA	Bi etxebizitza blokeen arteko kalean Portu ondoan.	Herrigunetik urrun Bidexka batetik joan behar da, baratzeak gurutzatu eta bukaeran	Altamira auzoan	Altamira auzoan dauden bi haur parkeak. Bata etxebizitza bloke artean eta bestea igerileku aurrean
ELEMENTU ANITZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Jolas sinbolikorako itsasontzia • Kolunpioak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago ezer 	<ul style="list-style-type: none"> • Anfiteatroa 	<ul style="list-style-type: none"> • Kolunpioak • Txirrista • Balanzinak • Etxetxoak • Eskalada
NATURA BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ez ditu 	<ul style="list-style-type: none"> • Erreka • Zuhaitzak 	<ul style="list-style-type: none"> • Natur ingurune baten erdian kokatuta. • Belardiak eta zuhaitzak inguruan 	<ul style="list-style-type: none"> • Belardia • Zuhaitzak
ESTALPEA	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estalperik 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estalperik 	<ul style="list-style-type: none"> • Estalpea 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago estalperik
ZAINTZAILE EREMUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Bankuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago elementurik 	<ul style="list-style-type: none"> • Anfiteatroko graderioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Bankuak • Bankua + mahaia
ZER ADINETAKO UMEAK	<ul style="list-style-type: none"> • 3-8 urte 	-	-	<ul style="list-style-type: none"> • 3-8 urte
BESTELAKO OHARRAK	Alde zaharrear dagoen haur parke bakarra Elementu oso urriak, dagoen bezala ez da leku erakargarria.	<ul style="list-style-type: none"> • Jaizkibelerako sarrera bertatik. • Asteburuetarako plana izan ohi da bertara joatea, haurrekin mendi buelta/paseotxo emateko aukera 	<ul style="list-style-type: none"> • Herrian eskeintza berri bat emateko espazio bat izan daiteke, ez bereziki haurrentzako diseinu bat eginez, baino baita beraientzako baliagarria izango dena. Aire libreko kultur eta aisirako eremua. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ohiko konfigurazioa duten parkeak • Nahiko berriak dira eta ez du zentsurik hauek kentzeak baina ezta ere eraldatzea edo berrikuntzak sartzea • Igerileku parekoa hesitua

AURRE-DIAGNOSTIKOA

PARKEAK	17. Añamendi parkea	18. Parke "berria"	19. Skate parkea	20. Markesane parkea
KOKAPENA	Babes ofizialeko etxeak dauden auzoan kokatua. Aparte erdigunetik.	Futbol zelai gainean eraikitako auzo berrian kokatua	Eskola ondoan	Herriaren erdigunean
ELEMENTU ANITZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kolunpioak • Txirrista • Balanzinak • Etxetxoak • Eskalada 	<ul style="list-style-type: none"> • Kolunpioak • Txirrista • Balanzinak • Etxetxoak • Eskalada 	<ul style="list-style-type: none"> • Skatean aritzeko elementuak • Ping pong mahaia 	<ul style="list-style-type: none"> • Bankuak eta berdeguneen arteko bideak
NATURA BALIABIDEAK	• Ez daude	• ?	• Ez daude	<ul style="list-style-type: none"> • Zuhaitzak • Berdeguneak
ESTALPEA	• Ez dago estalperik	• Ez dago estalperik	• Ez dago estalperik	
ZAINTZAILE EREMUAK	• Bankuak	• Bankuak		• Bankuak
ZER ADINETAKO UMEAK	• 3-8 urte	• 3-12 urte	• 6 urtetik aurrera	
BESTELAKO OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> • Hezetzasunak • Hesitatuako eremua • Erabilera gutxi • Etxeekin batera eraikitako ohiko konfigurazio parkea, pentsatu gabea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ohiko konfigurazioa, etxebizitzaren urbanizazioarekin bat eraikia. • Berri berria, bere hortan utzi. 	• Erabilera handia duen eremua	• Erdigunean dagoen eremu naturala.

TALDE ERAGILEAREKIN LAN SAIOA

Prozesua aurkeztu ostean talde eragilearen lehenengo lan saioa egin da. Bertan, banan banan Lezoko parke eta espazio publikoko aisialdi eremuak aztertu dira.

LAN SAIOA

• **Noiz:** 2023ko abenduaren 4a

• **Parte hartzaileak:**

Lezoko eragileen ordezkariak:

Lezoko udala
Lezoko ttikiak
Lezo Herri Eskola
Errota guraso taldea
Pasaia-Lezo lizeoa
Lezoko ludoteka
Txirbilla aisialdi taldea
Gurasoen elkarte

• **Helburu orokorra**

Lezoko parke eta aisialdi eremuen analisia egitea, egungo egoera eta behar ezberdinak aztertuz.

• **Informazioa guztia:**

Saioan jasotako informazio guztia hurrengo orrietan jaso da. Parkez parke jasotako iritziak (22. orrian) eta bakoitzaren balorazio orokorrak (21. orrian).

HELBURUAK

- Lezoko parke sarea identifikatzea
- Herriko parke eta aisialdi espazioak identifikatu eta hauen analisia egitea, diagnostikoa eta balorazioa.
- Etorkizunean egin beharreko lanen lehentasuna markatzea.



ONDORIO NAGUSIAK

- Izaera ezberdinak dituzten jolas parkeak falta dira Lezon.
- Jolas parke estali bat beharrezkoa da herrian.
- Barne parke baten beharra dago, non zaintzaileak eta haurrak elkarrekin egon daitezkeen aisialdi momentuetan.



LANDUTAKO FITXAK

01 TIROLINA

DIAGNOSTIKOA
Baloratu parkearen ondorengo ezaugarriak 1etik 5era, 1 batere egokia izanik eta 5 erabat egokia.

(1) (3) (5)

KOKAPENA

ELEMENTUAK

LURZORUA

ADIN GUZTITARA EGOKITUTA

EGURALDI ALDAEREI ERANTZUTEN DIO

ZAINTZAILEENTZAKO ESPAZIOA

ITURRIAK, ZAKARRONTZIAK...

BESTELAKO AIPAMENIK:

BALORAZIOA




PARKE HAU MANTENDU BEHAR DELA USTE DUZU? **BAI / EZ**

balezkoa erantzun baduzu, PARKE HAU ERALDATU BEHAR DELA USTE DUZU? **BAI / EZ**

balezkoa erantzun baduzu, ERALDAKETA HORREN LEHENTASUNA? **EPE MOTZA / EPE ERTAINA**

PROPOSAMENAK
Idatzi edo marraztu parke hau hobetzeko dituzuen proposamen zehatzak. Behar izatekotan erabili orriaren atzeko aldea.

02 EUSKAL HERRIA PLAZA

DIAGNOSTIKOA
Baloratu parkearen ondorengo ezaugarriak 1etik 5era, 1 batere egokia izanik eta 5 erabat egokia.

(1) (3) (5)

KOKAPENA

ELEMENTUAK

LURZORUA

ADIN GUZTITARA EGOKITUTA

EGURALDI ALDAEREI ERANTZUTEN DIO

ZAINTZAILEENTZAKO ESPAZIOA

ITURRIAK, ZAKARRONTZIAK...

BESTELAKO AIPAMENIK:

BALORAZIOA

PARKE HAU MANTENDU BEHAR DELA USTE DUZU? **BAI / EZ**

balezkoa erantzun baduzu, PARKE HAU ERALDATU BEHAR DELA USTE DUZU? **BAI / EZ**

balezkoa erantzun baduzu, ERALDAKETA HORREN LEHENTASUNA? **EPE MOTZA / EPE ERTAINA**

PROPOSAMENAK
Idatzi edo marraztu parke hau hobetzeko dituzuen proposamen zehatzak. Behar izatekotan erabili orriaren atzeko aldea.

DINAMIKA

Lezoko parke sarean dauden parke eta aisialdirako espazio guztiak identifikatu ostean, taldeetan banatuta, banan banan landu dira.

Lehenik eta behin diagnostiko bat burutu da, 1etik 5era parametro ezberdinak baloratuz; hala nola, kokapena, elementuak, adin guztietara egokitutako espazioa den ala ez, zaintzarako espazioak dituen,...


Behin diagnostikoa egina, balorazio bat egitea eskatu zaie, parke hori mantentzea ikusten den ala ez, eraldatu beharko litzateken eta, hala balitz, eraldaketa horren lehentasuna.

Azkenik, eraldaketa horietarako proposamen ezberdinak jaso dira.

Hurrengo orrietan, jasotako balorazioak, egindako parkeen aukeraketa eta plenarioan jasotako iritziki eta proposamenak ageri dira.

AURRE-DIAGNOSTIKOA

	KOKAPENA	ELEMENTUAK	LURZORUA	ADINA	EGURALDIA	ZAINZA	ALTZARIAK	MANTENDU	ERALDATU	LEHENTASUNA
01 TIROLINA	5	2	4	4	2	2	1	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
02 EUSKAL HERRIA PLAZA	5	5	3	4	1	5	4	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
03 KARLOS SALDISE PLAZA	5	1	5	3	4	5	5	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
04 TINELUKO PARKEA I	5	3	3	1	1	1	1	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
05 TINELUKO PARKEA II	5	3	1	4	1	5	5	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
06 MUSIKA ESKOLAKO PARKEA	4	1	1	1	1	5	5	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
07 LOPENE PLAZA	4	4	4	2	1	4	5	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
08 PISBEKO EREMU NATURALA	4	2	3	4	3		2	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
09 PISBEKO PARKEA	5	1	3	1	1	2	5	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
10 SAGARDIANDIA PLAZA	5	3	3	1	1	4	5	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11 ZUBITXO	5	1	1	1	1	1	1	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
12 ARALAR PARKEA	3	5	3	5	1	5	5	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
13 KAIALDE	5	1	3	1	1	4	4	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14 XOXLUR	5	1	4	3	4	3	1	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
15 ALTAMIRAKO ANFITEATROA								<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16 ALTAMIRAKO PARKEA I								<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17 ALTAMIRAKO PARKEA II								<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18 AUÑAMENDI PARKEA								<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19 PARKE BERRIA								<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20 SKATE PARK								<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
21 MARKESANE PARKEA								<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

 Lantzeko aukeratutako parkeak

01. TIROLINA

Erabiltzen da baina elementu bakarra izateak bere erabilera asko mugatzen du.

Belarra osinez beteta dago, mantenua behar du.

Mantendu behar da, eraldatu behar da eta epe motzean.

Nerabeentzako espazioak behar dira: rokodromoa, salto egiteko guneak...

02. EUSKAL HERRIA PLAZA

Elementuz nahiko osotua dago.

Oso kokapen egokia du.

Mantendu eta eraldatu behar da, epe motzean.

Arratoiak daude, hori zaindu behar da.

Komunak jarri behar dira

Estalpea behar du, erdigunean dago, handia da... eta ezin daiteke egon ezta eguzkia egiten duenean ezta euria dagoenean ere.

03. KARLOS SALDISE PLAZA

Mantenu lanak behar ditu, itoginak ditu.

Argiztapena oso eskasa da, indartu egin behar da.

Egunez ere oso espazio iluna da, beste modu bateko itxiturarekin egunez argitasun gehiago izango luke.

04. TINELU I

Bankuak errepidera begira daude.

Mantendu behar da baina ez du eraldatzeko beharrik beste batzuek lehentasun handiagoa dutelako.

Duela gutxi berritu dute.

05. TINELU II

Bankuek mantentze lanak behar dituzte

Futbolarentzako ere izan daiteke espazio hori? (saskibaloiko kantxak)

Garajeak daude

Jarri duten parkea txikientzako da baina nahiko arriskutsua da, oso gainean egon behar zara haurrak ez jausteko.

06. MUSIKA ESKOLAKO PARKEA

Goiko parkearekin alderatu da eta uste dute bietako bat mantendu eta eraldatu behar dela eta bestea kendu.

Biak dira nahiko pobreak, beheko eremua oso handia da eta korrika aritzeko aukera ematen du. Agian hori kendu eta bestea eraldatzea aukera posiblea litzateke.

Goiko aldean zuhaitzak eta belardia daude, eta haurrak hor jolasten aritzen dira. Natura eremu hori aprobetxatu daiteke (auzo konposta dagoen arren).

07. LOPENE PLAZA

Mantendu eta eraldatu behar da, epe motzean.

Erdigune zabala dago eta aprobetxatu beharko litzateke.

Futbola, bizikletekin ibiltzeko... espazioa izan daiteke.

Pump track bat? Non jarri daiteke? Espazio gehiago behar du plaza horretan dagoena baino.

08. PISBEKO EREMU NATURALA

Mantendu eta eraldatu behar da.

Zalantza Pisbeko zein eremuri eman behar zaion lehentasuna.

Txakurren kakak jasotzeko kontzientziario kartelak jarri behar dira.

Zakarrontziak falta dira.

Haurrek jolasteko egurrezko elementuak.

09. PISBEKO PARKEA

Mantendu eta eraldatu behar da.

Zalantza Pisbeko zein eremuri eman behar zaion lehentasuna.

Kolunpio asko daude.

Bankuak behar dira zainzaileentzako.

Bizilagunekin hitz egin zuten eta beraien eremua dela eta etxebizitzak egin behar dituztela diote. Beraiek kolunpioak mantendu nahi dituzte etxebizitzak bertan ez eraikitzeko.

10. SAGARDIANDIA PARKEA

Mantendu behar da baina eraldatzea ez da ikusten. Behekoarekin batera baloratu daiteke eta zerbait konjuntua planteatu.

11. ZUBITXO GARBITOKIA

Potentziala duela ikusten da, beraz mantendu eta eraldatzea proposatzen da. Bankuak/eskailerak konpondu. Uretarako sarrera bat egitea. Zubiari hesiak jartzea. Graderioa konpontzea, zuhaitzaren sustraiak...

12. ARALAR PARKEA

Mantendu behar da. Hemen ere errepideko paretetan arratoiak daude eta parkean ibiltzen dira. Sustoren bat egon da baina kexak jarri arren ez da ezer egin. Itzala behar du, komun publikoak ere behar dira. Espazioak potentzial handia du (espazio hutsa, berdegunea,...). Futbol kantxetako bat beheko espazio zabalean jarri daiteke agian. Lehentasuna ematea beheko parte aprobeztatzeari, estaltzeko adibidez? Eremu txiki bat bada ere, jolas elementuak edo hauen zati bat...

13. KAIALDE

Mantendu behar da (zalantzak) baina ez da eraldatu behar. Lurra pitzatuta dago, putzuak eta erreka sortzen dira.. Inguruko guztiak Euskal Herria parkera joaten dira bertara joan behar

14. XOXOLUR

Mantendu behar da eta eraldatu behar da, epe motzean. Eserlekuak behar ditu. Seinaleak, enborrak... Bidea oso gaizki dago, adreiluz, kristalez, kakaz... betea. Bertan ere zulo pila bat daude, ezin duzu ezta toalla jarri. Udan egoteko itzaletan eremu atsegina da baina oso utzita dago. Zalantza. Eremu naturala izanik, zenbateraino elementuak jarri?

15. ALTAMIRAKO ANFITEATROA

Auzotarrek auzoari bizia ematea eskatzen dute. Ez dago ezer bertan. Bazegoen berritzeko proiektu bat. Guztiz utzita dago eta ingurua oso polita da. Antzerkiak, kontzertuak... egiten dira bertan. Kultur espazio bat izan daiteke.

16. ALTAMIRAKO PARKEAK

17. AUÑAMENDI - (BOEtako parkeak)

Hesiak, lurra.. erabat puskatuta. Elementuak ere Ez dakite jendea egoten den baina uste dute ezetz, auzotarrentzako bakarrik da. Agian parke hau kentzea baloratu daiteke. Hezetasun pila bat dago... ez da batere atsegina

18. PARKE "BERRIA"

Berria jarri dute baina minimoa, urbanizazioaren parte da. Derrigorrezkoa da x auzokideentzako etxebizitzak egitean parke bat egitea? Informatu

19. SKATE PARKEA

Nerabeek eta Errenteriko jende helduak erabiltzen dute.
Ondoko pinpona erabiltzen da, baina pinponean aritzeko ez.
Ongi dago eta bere funtzioa betetzen du, iturria dago...

20. MARKESANE

Zaharrenetako bat da. Gurasoen artean asko aipatzen da. Espazio handia dago, zentroan dago, naturarekin hartu-eman handia.
Nerabeentzako errefugioa izan daiteke
Tirolinaren eremua ere ondoan du.

(+) BARNE PARKEA

Guraso zein haurrak egon daitezkeen espazio bat, (errf. Usurbilen ludoteka zegoen eta barne parke bihurtu zuten).

AURRE DIAGNOSTIKOAREN ONDORIOAK

Diagnostikoan egindako behaketak, zinegotziekin ibilbidea eta talde eragilearekin lan saioa kontuan hartuta, talde teknikoa ondorengo ondorioetara iritsi da:

Zergatik proposatzen dugu lehen aukeraketa bat egitea?

- Hurrekin gaia lantzen hasi aurretik parke kopurua murrizteko beharra dago. Eraldaketa ezin da parke guztietan burutu eta hurrekin lanketa errazteko ere egokiagoa da kopurua txikitzea.
- Parke batzuk indartu eta beste batzuk deuseztatu edo bere horretan uztea aukera bat dela ondorioztatu da, 20 espazioen eraldaketa eta mantenua egitea udalarentzako inbertsio potenteegia baita.

Zergatik proposatzen dugu aukeraketa hau?

- Lanketa honetan ez dira haur parkeak edo jolas parkeak soilik kontuan hartuko, hurrek aisialdirako erabiltzen duten edozein espazio ere lantzea baloratu da (Xoxolur, Pisebako eremu naturala, Karlos Saldise plaza, Zubitxoko garbitokia).
- Parke batzuk nahiko berriak dira eta irizpide guztiak betetzen ez dituzten arren funtzionatzen dute eta horregatik ez dira aukeratuak izan (Altamira auzoko parkeak, Parke berria).
- Parke batzuk ez dira hurren espazioak bezala pentsatu baizik eta espazio batean jolas elementu solteak jarri dira. Ez-lekuak dira, ez-parkeak, herriko ekipamendu edo zerbitzu ezberdinen ondoan kokatuak (Kaialde, Tinelu I, Tinelu II, Musika eskolako parkea, Sagardiandia parkea). Espazio moduan ez dira haur eremu bat sortzeko bereziki interesgarriak, horregatik ez eraldatzea proposatzen dugu eta bere hortan uztea edo ezabatzea.


- Lanketa hau parke guztiek konfigurazio berdina ematearen ondorioz sortu da. Horregatik, ikusten dugu, indarra jarri behar dela eraldaketa hori izaera ezberdina duten jolas parkeak sortzen.
- Aukeratutako espazioek, aukera ematen dute dauden lekuagatik beste mota bateko espazioak sortzeko, adibidez:
 - Pisebe eta Xoxolur naturan integratuak egoteagatik
 - Altamirako anfiteatroak bertan dauden azpiegiturengatik.
- Jada ongi funtzionatzen duten eremuak indartzea positibotzat jotzen dugu, horregatik, Lezo erdian kokatzen diren bi eremu potenteak, Karlos Saldise plaza eta Euskal Herria plaza aukeratuak izan dira.
- Bai Lopene plaza eta bai Aralar parkea espazio zabalak, argitsuak eta aukera desberdinak dituztenak direlako aukeratu dira. Haurrentzako erabilera anitzeko espazioak sortzeko aukera dute (kirol eremuak, naturarekin lotura, jolas parkea, ...).




IBILBIDEA

- 1 Tirolina
- 2 Euskal Herria plaza
- 3 Karlos Saldise plaza
- 4 Tinelu parkea I
- 5 Tinelu parkea II
- 6 Musika eskolako parkea
- 7 Lopene plaza
- 8 Pisbeko eremu naturala
- 9 Pisbeko parkea
- 10 Sagardiandia plaza
- 11 Zubitxo
- 12 Aralar parkea
- 13 Kialde
- 14 Xoxolur
- 15 Altamirako anfiteatroa
- 16 Altamirako parkeak
- 17 Auñamendi parkea
- 18 Parke "berria"
- 19 Skate parkea
- 20 Markesane parkea

- A Udaletxea
B Herri eskola
D Ikastola
E Anbulategia
F Herri baratzak

 LANTZEKO AUKERATUAK

 EZ DIRA LANDUKO

IKASLEEN LANKETA IKASTETXEAN

Lezoko parke sarearen lehen aukeraketa burutu ostean, bertako ikastetxe eta ludotekara joan gara, haurrei, prozesu honetako lehen protagonistei eremu hauen egoeraren inguruan galdetzeko.

LAN SAIOA

- **Noiz:** 2024ko otsailaren 19tik martxoaren 4ra
 - **Parte hartzaileak:**
Lezoko haurrak modu honetan antolatuta:
 - Lezo Herri Eskola: LH1-6 mailako ikasleak
 - Pasaia-Lezo lizeoa: LH1-2 mailako ikasleak
 - Lezoko ludoteka: edozein erabiltzaile
- Guztira 332 erantzun jaso dira.
- **Helburu orokorra:**
Haurrak beraiek Lezoko parke eta aisialdi eremuen analisia egitea, egungo egoera eta behar ezberdinak aztertuz.
 - **Informazio guztia:**
Ariketarekin jasotako informazio guztia hurrengo orrietan jaso da.

HELBURUAK

- Haurrengan parte-hartze kultura sustatzea.
- Zein erabili/ezagutzen dituzten jakitea.
- Hautaturiko parke bakoitzarengan dituzten sentimenduak azalartzea.
- Nola hobetu daitezkeen pentsaraztea.
- Hobetzeko proposamenak jasotzea.

DINAMIKA

- Parte-hartzaileen atalean aipaturiko adin tartetako ikasleek hurrengo ariketa burutu zuten ikastetxe/ludotekan.
- Prozesuaren nondik norakoak eta egin beharreko ariketa bera azaltzen zituen bideoa ikusi zuten.
- Ondoren, bi atalez osaturiko ariketa osatu zuten. Lehenengoan, zein parke ezagutzen zituzten seinalatu eta horiek eragiten zieten sentimenduen inguruan erantzun.
- Bigarreanean, hautaturiko parke horietako batean zein hobekuntzan egingo luketen zehaztu.



ESPLORATU_PARKEEN EZAGUTZA ETA SENTIMENDUAK

1

ESPLORATU

IRUDIAN AZALTZEN DIREN
ESPAZIOETAN ZEIN EZAGUTU ENO
ERABILTZEN ITUZU?

Ezagutzen dituzun horiek seinالاتو, borobil zuriaren gainean gometx ● jarri.

Erabiltzen ditugun lekuetara ohitu egiten gara, eta ohituta gaudenez, diren bezalakoak onartzen ditugu.

Seguraski batzuk besteak baino gehiago erabiltzen ditugu, edo batzuk besteak baino gehiago gustatzen zaizkigu. Zergatik?

Ezagutzen dituzun espazio horiek, nola deskribatuko zenituzke? Margotu bi izarrak, eragiten dizun sentimenduaren araberako bi kolorekin!

- DIBERTIGARRIA >> BERDEA
- EGUZKITSUA >> HORIA
- LASAIA >> LARANJA
- ATSEGINA >> URDINA
- ASPERGARRIA >> MOREA
- ILUNA >> GRISA
- TRISTEA >> ARROXA

HARTU BOTOAK, ETA HASI
ESPLORATZEN!

EUSKAL HERRIA PARKEA



LOPENE PLAZA



ALTAMIRAKO PARKEA



ZUBITXO GARBITOKIA



PISBEKO EREMU



XOXOLUR EREMU NATURALA



2

MARRAZTU

ZERBAIT ALDATUKO
ZENUKETZ?

Erakutsi dizkizugun leku horietatik ba al dago moldatu, eraldatu edo aldatuko zenukeen zerbaitez? Zer?

Adierazi, marrazkiz edo idatziz, eraldatuko zenukeen hori. Aurrera!

HARTU MARGOAK, ERROTULKIAK EDO NAHI DITUZUN TRESNAK ETA KONTATU ZEIN DIREN ZURE PROPOSAMENAK!

Nire izena.....



ESPLORATU_PARKEEN EZAGUTZA ETA SENTIMENDUAK

EMAITZAK


Zein eremu ezagutu edo erabiltzen dituzu?

Zein sentimendu eragiten dizu eremu bakoitzak?

(emaitzak portzentaien daude)

	EZAGUTU	DIBERTIGARRIA	EGUZKITSUA	LASAIA	ATSEGINA	ASPERGARRIA	ILUNA	TRISTEA
Euskal Herria Plaza	99,4	70,0	62,1	17,6	19,7	10,0	1,8	5,5
Altamira parkea	65,7	39,4	22,0	38,1	26,1	55,0	28,9	29,8
Lopene plaza	78,3	59,2	40,8	28,5	25,8	34,2	12,3	13,1
Zubitxo garbitokia	57,5	38,2	27,2	48,2	28,3	38,2	30,9	29,3
Pisbeko eremu naturala	57,2	40,0	22,6	52,1	24,7	31,6	30,5	22,1
Aralar parkea	91,3	66,3	44,9	22,8	29,0	10,6	8,9	6,3
Xoxolur eremu naturala	78,6	39,1	24,1	57,5	25,7	25,3	23,4	9,2

- DIBERTIGARRIA
- EGUZKITSUA
- LASAIA
- ATSEGINA
- ASPERGARRIA
- ILUNA



ONDORIO OROKORRAK

- Euskal Herria, Lopene eta Xoxolur eremuak dira haurrek gehien ezagutzen dituztenak. Zubitxo eta Pisbe gutxien.
- Altamira, Zubitxo eta Pisbeko eremuek jaso dituzte baloazio negatiboak. Euskal Herria eta Aralar-ek aldiz, positiboak.
- Hiru eremu "naturalak" dira guztietan lasaienak.
- Iluntasun eta tristura sentazioak elkarrekin etorri dira askotan, eta Altamira, Pisbe eta Zubitxorekin lotu dituzte batik bat.
- Euskal Herria eremua da dibertigarriena baina aldi berean, lasai eta atsegin indize baxuenak atera ditu.

MARRAZTU_HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

EMAITZAK

Zer bait aldatuko zenuke? Zer bait gehitu?

Hau ek izan dira eremu bakoitzerako marrazturiko aldaketa edo proposamen errepikatuenak.



Xoxolur	Zubitxo	Aralar	Altamira	Pisbe	Lopene	Euskal herria plaza	Orokorrak
Tobogana	Eskailerak berritu	Araña kolunpioa (gaur egun dagoenak mina egiten du)	Txirristra	Tirolina zuhaitzetatik	Mahaiak	Multi kirolerako eremua	Txirristra
Tirolina	Uretara doan txirristra	Tirolina	Kolunpioak	Zuhaitzetako etxetxoa	Multikiroletako eremua	Tirolina	Kolunpioak
Zuhaitzetako etxetxoa	Eremua eta ura garbitu	Banakako kolunpioak	Tobogan luzea	Intsektuen etxea	Eskalatzeko elementua	Txirristra	Tirolina
Iturria	Kolunpioak		Ohe elastikoa	Tobogana	Etxetxoa	Ohe elastikoa	Zuhaitzak
Etxetxoa	Zubiari balla jarri						Tobogana
							Eskalatzeko elementuak
							Multikirol eremua

HERRITARREI GALDETEGIA

Lezoko komunitateko kide ezberdinek parke sareari buruz duten ikuspegia eta nahiak ezagutzea bilatu da, baina horrez gain, eremu hauek herriko beste espazio publiko bat direnez, herri osoari galdetegi bat ireki zaio. Horrela guztion ekarpenak jaso eta ikuspegi eta behar ezberdinak dituzten pertsonen ekarpenak jasoko ditugula bermatuz.

GALDETEGIA

- **Noiz:** 2024ko martxoaren 1etik 18ra.
- **Erantzunak:** 128 erantzun jaso dira.
- **Informazioa guztia:** QR edo lotura honetan galdetegiaren emaitza guztiak ikus daitezke.

<https://labur.eus/lezokoparkesarea>



DATU SOZIOLOGIKOAK

- Jasotako erantzunetatik %72-k euskaraz erantzun du.
- Erantzundakoen perfila honelakoxea da: %86-a, 26-46 adin tartekoa da. gehiengoa (%69), emakumea eta guraso moduan erantzun dute %87-k.

GEHIEN ERABILTZEN DIREN EREMUAK

- Euskal herria plaza: %86
- Aralar parkea: %34
- Lopene plaza: %29
- Pisbeko natur eremua: %28
- Zubitxo: %23
- Xoxolurra: %22
- Altamira: %11

ERALDATZEKO BEHAR GEHIEN DUTEN EREMUAK

- Euskal herria plaza %82
- Pisbeko natur eremua % 67
- Zubitxo % 52
- Lopene %46
- Xoxolurra %37
- Aralar parkea %36
- Altamira %25

HERRITARREI GALDETEGIA

EUSKAL HERRIA	ALTAMIRA	LOPENE	ZUBITXO	PISBE	ARALAR PARKEA	XOXOLUR	OROKORREAN
Estalpea	Haunditze eta birgaitze totala Garbitasuna eta argitasuna indartu	Birgaitze totala	Bainurako igerileku naturala egokitu	Merenderoa berritu	Argiztapena hobetu	Jolasleku naturala (herri eskolakoaren antzerakoa)	Estalitako eremu bat
Jolas elementuen birgaitze totala		Estalpea	Garbiketa sakona	Biziberritu	Parke eremua estali		Multi kirol kantxa
Multikirola kantxa	Auzoa birgaitzeko beharra Anfiteatroa birgaitu haur eremu moduan	Multikirol kantxa		Txakurrentzako eremu itxia	Montessori kolunpioak		Work out parkea
Kolunpioak		Argiztapena hobetu Adin txikikoentzako elementuak			Ekilibrio elementuak		Baloi/pilotaren gestioa arautu Naturarekin harremantzeko jokoak indartu
Tobogana	Moskitoentzako soluzioa bilatu 0-6 urte bitartekoentzako elementuak jarri				Salto salto		Parke berean adin ezberdineko haurrentzako aukerak jarri
Enborrekin jolasak					Multikirola kantxa Adin txikikoentzako elementuak		
Hondarra	Ping pong mahaia				Zarata eragozteko panelak		12 urtetik gorakoentzat espazio bat Eserlekuak, mahaiak eta komunak Hondarra
Oro har, egurrezko elementuak Txirritan antzerako parkea Mantentze lanak maiztasun haundiagoarekin Itzala							Tirolinaren eremuari gehitu rokodromoa Zakurren kudeaketa arautu Tiñelu, Kaialde eta Auñamendi parkeak zaharberritu Plastikozko parkea (eguraldiarengatik) Mahai eta bankuak (mahai jokoak, urtebetetzeak...) Lurrak aldatu, arriskutsuak dira Adin nagusikoentzako elementuak (tiborlina, ohe elastikoa, tobogan, laberintoa...)
Adin guztietarako elementu gehiago Kiosko erdian kafeteriarekin							

The background is a solid orange color. On the left side, there are several white-outlined rectangles of various sizes and orientations, some overlapping each other. One large rectangle is in the upper left, another is below it, and a third is further down. On the right side, there are two more white-outlined rectangles, one larger one above a smaller one.

PARKE SAREA ERABERRITZEN

Proposamena

HAURREKIN IBILBIDEAK

Lezoko haurrekin proposamena lantzen hasteko ibilbide esploratorioak burutu ditugu. Hautatutako zazpi eremuetara joan gara (Xoxolur ezik) eta eremu bakoitzean ariketa ezberdin bat landu da. Horrela, proposamenerako lehen oinarriak finkatu ditugu haurrekin batera.

IBILBIDEAK

- **Noiz:** 2024ko apirilean
- **Parte hartzaileak:**
Lezoko herri eskolako LHko ikasle ordezkariak
Lezoko lizeoko LHko ikasle ordezkariak
- **Helburu orokorra:**
Diagnostikotik eratorritako informazioa baliatuz, tokian toki ariketa ezberdinak lantzea proposamena burutzen hasteko.
- **Informazioa guztia:**
Hurrengo orrietan parke bakoitzean landutako ariketak eta hauetatik ateratako emaitzak ditugu.

HELBURUAK

- Hautatutako parkeak tokian ikustea
- Tokiaren ezaugarriak hobeto ezagutzea
- Proposamena lantzeko diseinuaren lehen oinarriak zehaztea
- Parke edo eremu hauen arteko bide eta konexioak seguruak diren ala ez frogatzea

ONDORIO NAGUSIAK

ALTAMIRAKO PARKEA

Eraberritze integrala behar du.
Kirol ekipamenduak edo trebatzeko elementuak jartzeko espazio aproposa da.

EUSKAL HERRIA PLAZA

Aldaketa puntualak egitea ikusten da.
Tirolina bat eta estalpe bat jartzea proposatu da, besteak beste.

ARALAR PARKEA

Goiko espazioa ondo dago.
Beheko espazio hutsa osatzeko beharra ikusten da. Gehienek kirol elementuak jartzea ikusten dute aukerarik onena.

ZUBITXO GARBITOKIA

Espazioak birgaitze bat behar du. Segurtasuna eta erosotasuna bermatu behar dira (eserleku goxoak, hesiak...), baita ere urarekin konexioa.

LOPENE PLAZA

Jolas parkea osorik berritu behar da, eta adin guztietara egokitu.

PISBEKO EREMU NATURALA

Jolas elementuekin, trebatze elementuekin... hornitu daiteke baina eremu naturala dela kontuan hartu behar da.

XOXOLUR EREMU NATURALA

Eremu natural bezala mantendu behar da, baina zerbitzu minimoak gehitzea ez legoke gaizki (zakarrontziak, iturria, mahaiaik...).



LANKETA EREMUZ EREMU

ALTAMIRAKO PARKEA

ARIKETA Parke honek zein izaera izatea nahi duzu? Aukeratu argazki ezberdinen artean gustoko duzun parke eredua.

Egoteko lekuak 3

Kirol ekipamenduak 19

Parkour/trebatze elementuak 11

Laberintoak 10

Jolas parkea 10

Lurreko margo eta reliebeekin jolasak 9

EUSKAL HERRIA PLAZA

ARIKETA Zein espazio edo elementu gehitu daitezke espazio honetan? Parkean bertan espazio edo elementu ezberdin horiek irudikatuko ditugu

Tirolina bat

Elementu bio osasungarriak kendu eta beste zerbait jartzea eta eremu hau estaltzea

Mahai ingurua estaltzea

Jolas parkea estaltzea

Multikirol kantxa jartzea

Pump-truck

ARALAR PARKEA

ARIKETA Beheko eremuan zer proposatuko zenuke? Orri huts batean egin marrazki edo plano bat proposamenarekin

Multikirol kantxa

Txirrista handia

Trebatzeko armiarma sarea

Tirolina

Parkera iristeko eskailera hobeak

ZUBITXO GARBITOKIA

ARIKETA Zer konponduko dugu? Zer gehituko dugu? Postitekin proposamenak eremuan zehar irudikatuko ditugu.

Goiko aldean, egoteko bankuak, espazio goxoa Hesia konpondu eta altuagoa jarri

Belarra moztu

Erreka garbitu

Zikinkeria kendu

Zubiari hesia jarri



AURRE-DIAGNOSTIKOA

Zakarrontziak jarri
Uretara jaisteko eskailerak
Lurra konpondu zuhaitzen sustraiak kontuan hartuz

LOPENE PLAZA

ARIKETA Zer aldatu nahi dugu plaza honetan?
Taldea, plano gainean proposamenak marraztu.

Jolas parkea berritu
Enbor parkea berdegunean
Materialtasun ezberdineko lurak jarri
Jolas parkea txikiagoentzat egokitu
Txirrista handia
Eserlekuak berritu
Tirolina
Beheko eremuan kirolerako elementuak gehitu

PISBEKO EREMU NATURALA

ARIKETA Nola bihurtu ditzakegu leku hauek atseginago?
Eredu ezberdinen argazkien artean, Pisberako gustoko dituzun elementuak aukeratu gometzekin.

Koloetako mikadoa 1
Zuhaitz etxea/jolasa 3
Mahaia + aulkiak 1
Txokoak, gordetzeko lekuak 1
Txintxaunak 3

Tirolina 8

Saski txintxaunak 15

Iturria 1
Egurrezko mikadoa 7
Zakarrontziak 1
Hondarrezko parkea 2
Kalistenia elementuak 5
Antzeztokia, dantza egiteko 1
Uraren parkea 1
Zuhaitz jolasa 0
Hamaka 1

XOXOLUR EREMU NATURALA

ARIKETA Nola bihurtu ditzakegu leku hauek atseginago?
Eredu ezberdinen argazkien artean, Xoxolurrerako gustoko dituzun elementuak aukeratu gometzekin.

Koloreetako mikadoa 10

Zuhaitz etxea/jolasa 5
Mahaia + aulkiak 3
Txokoak, gordetzeko lekuak 2
Txintxaunak 2
Tirolina 0
Saski txintxaunak 1
Iturria 4
Egurrezko mikadoa 0
Zakarrontziak 12
Hondarrezko parkea 0
Kalistenia elementuak 9



Antzeztokia, dantza egiteko 0
Uraren parkea 2
Zuhaitz jolasa 1
Hamaka 1

PARTE-HARTZETIK ERATORRITAKO EMAITZAK

PARKEAK	ALTAMIRAKO PARKEA (igerileku ondokoa)	EUSKAL HERRIA PLAZA	ARALAR PARKEA	LOPENE PLAZA	PISBEKO NATUR EREMUA	ZUBITXO	XOXOLUR NATUR EREMUA
Interbentzio orokorra	Birgaitze osoa behar duen eremua. Azalera gehiago hartuz. Batez ere, 0-6 tarteari erantzuteko.	Estalpea bertan kokatzeko eskari nahiko orokorra. Birgaitze partziala, edo totala?	Goiko parkea ondo dagoela baloratu da oro har. Beheko zatian zentratu interbentzioa, erabilera emanaz.	Haur parkea osorik berritu behar da. Behe eremuan, kiroltarako baliatu daiteke.	Eremua biziberritu behar da, bere osotasunean pentsatuz. Baina eremu naturala dela kontutan hartu.	Egoera kaxkarrean dagoen eremua. Udarako potentzialitatea du. Igerileku naturala izan daiteke. Segurtasuna eta erosotasuna bilatu eta urarekin konexioa.	Zalantza dago eremu naturala izanik zenbaiteraino eskuhartu behar den. Zeozer gehitzekotan egurrezko jolas elementak eta zerbitzu minimoa.
Elementu interbentzio konkretuak	<ul style="list-style-type: none"> • Trebatzeko elementuak • Kirol elementuak • Txirristra/tobogan haundiak • Kolunpioak • Ohe elastikoa • Ping pong mahaia 	<ul style="list-style-type: none"> • Estalpea • Komunak • Multikirol kantxa • Tirolina • Txirristra • Ohe elastikoa • Elementu naturalagoak: enborrak, hondarra. 	<ul style="list-style-type: none"> • Estalpea • Komunak • Multikirol kantxa • Araña kolunpioak • Tirolina • Ekilibrio elementuak • Salto salto • Txirristra 	<ul style="list-style-type: none"> • Mahaiak • Multikirol kantxa • Etxetxoak gordetzeko • Eskalada eremua • Enbor parkea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Tirolina zuhaitzetatik • Zuhaitzetako etxetxoak • Tobogana • Egurrezko mikadoa • Saski kolunpioa • Zakarrontziak 	<ul style="list-style-type: none"> • Graderioa eta lurra konpondu, sustraia errespetatuz. • Uretara sarrera egokitu. Eskailera eta txirristra bidez. • Zakarrontzia • Bankuak goiko aldean. 	<ul style="list-style-type: none"> • Tobogana • Tirolina • Zuhaitzetako etxetxoak • Iturria • Zakarrontzia • Mahaiak
Lehentasuna		• Epe motzean		• Epe motzean			• Epe motzean
BESTELAKO OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> • Intsektuen presentzia deserosoa • Igerilekuaren gertutauna 	<ul style="list-style-type: none"> • Arratoien presentzia deserosoa. • Adinekoentzako gimnasia elementuak lekuz aldatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Argiztapena hobetu • Zarata/bizilagunak kontutan hartzekoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Argiztapena hobetu • Altzarien mantenimendua 	<ul style="list-style-type: none"> • Txakurrentzako eremua mugatu/arautu. Kudeaketa egin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kontutan hartu lehenago lixutegia zegoela bertan, lotura egin ahal da. • URAtik etorrirako proiektua kontutan hartu behar da. • Eremua garbitu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bertara doan bidea txukundu eta garbiketa sakona burutu

TALDE ERAGILEAREKIN LAN SAIOA

Diagnostiko eta proposamen faseetako parte hartze saioak bukatu ondoren, informazioa antolatu eta lantzeko tarte hartu eta talde eragilearen azken bilera deitu da.

IBILBIDEAK

- **Noiz:** 2024ko ekaineran 3a
- **Parte hartzaileak:**
 - Lezoko eragileen ordezkariak:
 - Lezoko udala
 - Lezoko ttikiak
 - Errota guraso taldea
 - Pasaia-Lezo lizeoa
 - Lizeoko gurasoen elkarte
- **Helburu orokorra:**

Orain arte jasotako emaitzen deluzioa eta kontrastea burutzea.
- **Informazioa guztia:**

Hurrengo orrietan landutako ariketak eta hauetatik ateratako emaitzak ikusgai ditugu.





HELBURUAK



- Prozesu parte hartzaileko emaitzen deboluzioa
- Eremu bakoitzeko interbentzio mailaren definitzioa
- Prozesutik ateratako bestelako proposamenen kokapena
- Interbentzioen lehentasunak zein diren finkatu.


DINAMIKA

- Prozesu parte hartzailean garatutako ekintza eta beraietatik jasotako emaitzen aurkezpena.
- Dinamika: Jolas eremu bakoitzean egin beharreko lanen interbertzio maila zehaztu. Eta prozesu parte hartzailetik eratorritako proposamenak planoan kokatu. Aurkezpenean azaldu da, ezinezkoa dela dena birgaitzea, kostu ekonomikoa dela eta. Dinamikaren helburua, Lezoko argazki orokor orekatu bat bilatzea da. Guztion interes eta beharrak asetuko dituena, behintzat herriko punturen batean.
- Plenarioa: Taldeka egindako ariketa beste taldeekin partekatu.
- Lehentasunen ariketa: Guztion artean zein diren lehenetsi beharreko lanak erabaki.



INTERBENTZIOEN DEFINIZIO ARIKETA







JOLAS EREMU BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO LANAK		
	JOLAS PARKEA EREMU OSOA BIRGAITU	Birgaitze osoa, dagoen lurzoru eta jolas elementu guztiak kendu eta jolas eremu berria eraiki.
	JOLAS ELEMENTU BERRIA	Jolas elementu berrien bat/batzuk gehitu edo dagoen batzengatik ordeziatu. Baina orokorrean parkearen konfigurazioa mantentuz.
	URBANIZAZIO LANAK	Eremurako sarrera/irteera, lurzoru, estalpe, iragartitasuna edo hiri altzainei lotutako lanak.
	DAGOEN BEZALA UTZI	Ez da inongo lanik egitea aurreikusten.


PROZESU PARTE HARTZAILETIK ERATORRITAKO PROPOSAMENAK		
	MULTI KIROLA KANTXA	Ez dago horrelako eremurik eta oso demandatua izan da prozesuan. Ikuspegi tekniko batek ongi ikusten da ezartzea, baina kokapena ongi pentsatu behar da (zonalde egokiena markaturta planoan).
	ESTALPEA	Gaur egun ez dago estalita dagoen jolas eremurik, honen beharra nabaria da. Euskal herria edo Aralar izan dira aipatuena estaltzerako orduan, zein estailo dugu?
	JOLAS AKTIBO URBANOAK EGITEKO EREMUA	Parkour, pump track edo rokadromoa...mota honetako ariketak egiteko eremua, batez ere +8 urtetik aurrera
	EGOTEKO EREMUA	10 urtetik aurrerakoek askotan egoteko eremuak, nahi dituzte, leku intimoagoak eskatzen dituzte. Mahaiaik, aulkiaik, bankuak, gradak...
	TIROLINA	Gehien eskatu den elementua, badago bat baina baloratu behar da hau mantendu, lekuz aldatu, berri bat jarri...eta horrela bada non?
	TOBOGAN HAUNDIA SALTO SALTO EREMUA ARAÑA KOLUNPIKA	6 urtetik gorakoentzako elementu gehiago eskatu dira prozesuan zehar. Demandatuena seinalatutako hiru horiek izan dira.



INTERBENTZIOEN DEFINIZIO ARIKETA

JOLAS EREMU BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO LANAK			ARIKETAREN EMAITZA
	JOLAS PARKEA EREMU OSOA BIRGAITU	Birgaitze osoa, dagoen lurzoru eta jolas elementu guztiak kendu eta jolas eremu berria eraiki.	ALTAMIRA: Parkea guztiz berritzeko beharra. Auzoak behar du, baino duen kokapenarekin herriarentzako ere interesgarria. LOPENE: Gaur egungo jolas elementuen eremua + belar eremuaren zati bat hartuta, guztiz eremu berria planteatu. Eremu polita da eta berritu ez gero erabilera izango du ziur.
	JOLAS ELEMENTU BERRIA	Jolas elementu berriren bat/batzuk gehitu edo dagoen batengatik ordezkatu. Baina orokorrean parkearen konfigurazioa mantenduz.	EUSKAL HERRIA: Beherago azaltzen den estalpeaz gain, eremu honi zenbait jolas elementu +6 urtekoentzat gehitzea proposatu da. Helduentzako gimnasia makinak mugitzeko aukera? baloratzekoa. ARALAR: Gaur egun hutsik dagoen beheko plazan gazte-txoenendako lasai egoteko eremua eta trebatzeko elementuak (gora-behera, salto, oreka...). Parkeko argiztapena ere hobetu beharko litzateke. PISBEKO NATUR EREMUA: Lurzorua dagoen bezala utzita zenbait jolas elementu gehitzea egoki ikusten da. Elementuak naturarekin bat datozenak; egurrezkoak, sokak...merenderoa osatu.
	URBANIZAZIO LANAK	Eremurako sarrera/irteera, lurzoru, estalpe, irisgarritasuna edo hiri altzairuei lotutako lanak.	ZUBITXO: Urbanizazio lanen barruan, graderioan berriztapena, lurzoru berri, bankuak aldatu, erreka gurutzatzen duen zubia segurtasuna bermatu eta errekarako sarbidea egokitu haurrentzat.
	DAGOEN BEZALA UTZI	Ez da inongo lanik egitea aurreikusten.	XOXOLUR: Eremu naturala dagoen bezala uztea da idei orokorra. Gehitzekotan hiri altzarirenbat, hau da, zakarrontzia, mahaia, bankua edo antzeko elementuak. Bidea garbitzeari emango zaio lehentasuna.

PROZESU PARTE HARTZAILETIK ERATORRITAKO PROPOSAMENAK			ARIKETAREN EMAITZA
	MULTI KIROLA KANTXA	Ez dago horrelako eremurik eta oso demanda-tua izan da prozesuan. Ikuspegi tekniko batetik ongi ikusten da ezartzea, baina kokapena ongi pentsatu behar da (zonalde egokiena markatuta planoan)	Kiroldegiaren ingurunea da espazio egokiena. Ez da guztiz eremu zentrala, baina kirol ekipamenduak bertan daude eta zentro zibikoaren proiektua ere bertan doa. Ikusi behar da zein tamainano kantxa kokatu daitekeen, skate park ondoan, aparkalekuaren inguruan edo Arraitokin.
	ESTALPEA	Gaur egun ez dago instalita dagoen jolas eremurik, honen beharra nabaria da. Euskal herria edo Aralar izan dira aipatuena estaltzerako orduan, zein instaliko dugu?	Estapearen beharra ezin da ukatu eta herriko parke zentrolean, Euskal Herrian, joan behar dela argi dago. Osorik edo zati batean estali aztertu behar da.
	JOLAS AKTIBO URBANOAK EGITEKO EREMUA	Parkour, pump track edo rokodromoa...mota honetako ariketak egiteko eremua, batez ere +8 urtetik aurrera	Gaur egun tirolina dagoen eremua +8 urtetik gorako gaztetxoentzako eremu egoki moduan ikusten da. Tirolina mantendu eta bertan rokodromoa eta egoteko eremua kokatuta.
	EGOTEKO EREMUA	10 urtetik aurrerakoek askotan egoteko eremuak, nahi dituzte, leku intimoagoak eskatzen dituzte. Mahaiak, aulkiak, bankuak, gradak...	Tirolinaren eremua, zubitxo, Pisbe eta Aralarren aurreikusten dira lasai egoteko eremua eta pixkat gordetzeko aukera ematen dizutenak.
	TIROLINA	Gehien eskatu den elementua, badago bat baina baloratu behar da hau mantendu, lekuz aldatu, berri bat jarri...eta horrela bada non?	Gaur egun dagoen lekuan mantentzea erabakia da, baina eremua txukundu, mantenu lanak egin eta biziberritze aldera, egoteko eremua eta rokodromoa bertan kokatuta.
	TOBOGAN HAUNDIA SALTO SALTO EREMUA ARAÑA KOLUNPIOA	6 urtetik gorakoentzako elementu gehiago eskatu dira prozesuan zehar. Demandatuenak seinalatutako hiru horiek izan dira.	Euskal herria, Aralar, Pisbe eta Lopene parkeetan adin honetatik gorakoentzako elementu berri demandatuenak kokatuko dira.



HIRITIK AT

Lurraldegintzarako
koordinatu
berriak